

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2054

806/2024 EBAZPENA, apirilaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez adierazten den Ana Isabel Calvo Aguirre andreak, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izateari uzten diola erretiroagatik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 31ko 65/2014 Ebazpenaren bidez, Ana Isabel Calvo Aguirre andrea Goierri-Urola Garaiko ESIko zuzendari mediko izendatu zen. Ebazpen hori EHAAan argitaratu zen, 2014ko otsailaren 13an.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ana Isabel Calvo Aguirre erretiroagatik Goierri-Urola Garaiko ESIko zuzendari mediko lanpostutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko maiatzaren 30eko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzari, Goierri-Urola Garaiko ESIn eta Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzuari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.